

OSTEGUNA

2021/10/14

9. urtea, 1.487. zenbakia

107.6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83 €

Herritarrek 11 proiekturen arteak erabaki ahalko dute

Amasa-Villabonako Herritarren Parte Hartze batzordeak pasa den urtean bertan behera utzitako prozesua berreskuratu du, eta herri galdeketa egingo dute azaro bukaeran // 5



Herri galdeketa prozesua azaldu zuten atzo. JON MIRANDA



JON MIRANDA

ALKIZA

DENBORAREN JOANAZ

Sormenaren Kabia bekari esker Alkizan dago lone Larrago ilustratzailea egonaldia egiten; hiru astez egongo da, eta epe horretan ipuin ilustratu bat sortuko du; abenduaren 17an egingo duten ekitaldian aurkeztuko du // 4

ISASTEGI
~ SAGARDOTEGIA ~
ALDABA TXIKI AUZOA~TOLOSA (GIPUZKOA)
TEL: 943 65 29 64 ISASTEGI.COM

Tolosaldeko XIII. IKT Astea egingo dute hilaren 25etik 29ra

Enpresen egunerokoan tresna digitalen erabilera sustatzea du helburu ekimenak; 11 ikastaro egingo dituzte, enpresa nahiz komertzioentzat // 2

Eskualdeko 16 ekintzaileri diruz lagunduko die Lanbidek

Enpresa bat sortzeko ideia dutenentzat eta enpresa martxan jartzera doazenentzat izango dira laguntzak; azaroaren 2ra arte aurkeztu ahalko da // 2

Laugarren Eltxotrail antolatu dute hilaren 23an, bi ibilbiderekin

Ibilbide Luzeak 21 kilometro izango ditu, eta motzak 8,3; Orendaingo inguruak ezagutzeko aukera ematen du probak // 7

Enpresetan teknologia berriak ezartzeko, IKT Astea egingo dute

Urriaren 25etik 29ra bitarte 11 ikastaro izango dira; goizetan enpresei zuzendutakoak izango dira, eta eguerdietan eta arratsaldeetan komertzioei

Erredakzioa

Tolosaldeko XIII. Informazio eta Komunikazio Teknologien Astea antolatu Tolosaldea Garatzenek urriaren 25etik 29ra bitarte. Eskualdeko garapen agentziatik esan dutenez, ekimenaren helburua da enpresen egunerokoan IKT edo tresna digitalen erabilera sustatzea.

Guztira 11 ikastaro eskainiko dituzte, eta doan izango dira. Besteak beste, zibersegurtasuna, Ticket BAI plataforma berria, interneteko posizionamendua, sare sozialak edota erreserba sistemak izango dira jorratuko dituzten gaiak.



Lehiberri zentroan izango dira saio gehienak. ATARIA

Saioak goizetan, eguerdietan eta arratsaldeetan izango dira. Goizeko saioak enpresei bideratutakoak izango dira; eguerdietan saltoki txikiei zuzendutakoak eskainiko dituzte; eta arratsaldeetan, ostatu, taberna eta eta jatetxeentzako saioak izango dira. Hala eta guztiz ere, edozein herritarrek parte ahal izango du saioetan. Lehiberri zentroan, Villabonako KZ Gunean eta Tolosako Emari Coworking Gunean eskainiko dituzte. Nahi adina ikastarotan eman ahal izango da izena, [Tolosaldeagaratzen.eus](mailto:lehiberri@tolosaldea.eus) webgunean, lehiberri@tolosaldea.eus helbidean edo 943 65 45 01 telefono zenbakian.

Tolosaldeko 16 ekintzailereren proiektuak diruz lagunduko ditu Lanbidek

Enpresa sortzeko ideia dutenentzat nahiz enpresa martxan jartzera doazenentzat izango dira diru laguntzak

Erredakzioa

Lanbidek eskualdeko ekintzaileak diruz lagunduko ditu enpresa berriak sortzeko aukerak aztertu edota enpresa berriak martxan jartzeko helburuarekin. 21.775 euroko diru laguntza bideratuko du Euskal Enplegu Zerbitzuak, Tolosaldea Garatzenen Ekintzailletza Sailarekin elkarlanean.

Guztira 16 proiektu lagunduko dituzte diruz. 10 laguntza, enpresa bat sortzeko ideia duten ekintzaileentzat izango dira, bideragarritasun azterketa bat egin dezaten; eta beste seiak, dagoeneko bideragarritasun azterketa egin izan eta enpresa martxan jartzera doazenentzat.

Enpresa ideia garatu nahi dutenei zuzendutako diru laguntzei dagokienez, bi hartzaile mota izango dituzte: 30 urtez azpiko ekintzaileentzat sei diru laguntza izango dira, eta beste lau, adin horretatik gorakoentzat. Baldintza batzuk bete beharko dituzte guztiek, hala nola, langabeak izatea, Lanbiden izena emanda egotea, Tolosaldea Garatzenen aholkularitza jasotzea, helburu bererako beste diru laguntzarik ez jasotzea, ekonomia jardueren gaineko zergan eta langile autonomoen araubide berezian iaztik alta eman ez izana eta eskusiboki bideragarritasun azterketa egitera dedikatzea, bi hilabeteko epealdian.

Beste 6 diru laguntza enpresa martxan jartzera doazenentzat izango dira. Kasu honetan, ezinbestekoa izango da bideragarritasun plana egin izatea eta gehienez hiru hilabeteko epean autonomoetan alta ematea, laguntza jaso ahal izateko. Hau da, epe horretan martxan jarri beharko dute enpresa.

Eskaerak egiteko epea azaroaren 2an amaituko da. Tolosaldea Garatzeneko Ekintzailletza sailarekin jarri beharko da harremanetan, Lehiberri Zentrora berrataruta, 943 65 45 01 telefono zenbakira deituta edota zubeldia@tolosaldea.eus helbidera idatzita.

EGITARAUA

Goizak (enpresak)

Urriak 25 (astelehena). Ticket BAI: berrikuntza aukerak identifikatuz, 09:00etatik 12:00etara, Lehiberrin.

Urriak 26 (asteartea). Power BI: bere erabileraren onurak, 09:00etatik 13:00etara, Lehiberrin.

Urriak 27 (asteazkena). Nola aurkitzen nautenire bezeroek? Teknikak eta erremidak, 09:00etatik 13:00etara, Lehiberrin.

Urriak 28 (osteguna). Ransomwa-

re: arriskua murrizteko gomendioak, 09:00–13:00, Lehiberrin.

Urriak 29 (ostirala). Zibersegurtasun industrial: produkzio arloko arriskuak eta soluzioak, 09:00etatik 12:00etara, Lehiberrin.

Eguerdiak (komertzioak)

Urriak 25–26 (astelehena eta asteartea). Hobetu zure irudia Interneten, 14:00etatik 16:00etara, Villabonako KZ Gunean.

Urriak 27–28 (asteazkena eta osteguna). Egin zure negozioa Interneten ikusgai!, 14:00etatik 16:00etara, Tolosako Emari Coworking Gunean.

Arratsaldeak (komertzioak)

Urriak 25 (astelehena).

Publizitatea sare sozialetan, 17:00etatik 19:00etara, Lehiberri zentroan.

Urriak 26 (asteartea). Erreserba-

Sistemak eta Revenue Management, zure ostatu hobeto saltzeko, 17:00etatik 19:00etara, Lehiberri zentroan.

Urriak 27 (asteazkena). Zer ez da falta behar ostatu edo jatetxeetako web batean?, 17:00etatik 19:00etara, Lehiberri zentroan.

Urriak 28 (osteguna). Sare soziale-rako irudi eta bideoak hobetu, 17:00etatik 19:00etara, Lehiberri zentroan.

Gazteak erreka garbitzen aritu dira

Erredakzioa

Alegia-Amasa-Villabona

Alegiako Herri Eskolako LH 5. mailako ikasleek Amezketa erreka zati bat garbitu zuten ostiralean. Alegiako Udalak sakabatatutako zaborren pilaketa fokua prebenitzeko eta zuzentzeko aurten martxan jarritako Alegiako natur guneen garbiketa proiektuaren barruan, Franconitik hasi eta futbol zelaira bitarteko ibai zatian aritu ziren garbiketa lanetan, Urtzain taldeko kideek dinamizaturiko saioan. Guztira 45 kilo hondakin atera zituzten ibaitik. Udalak esan duenez, «plastikozko hondakinak izan ziren batik bat ate-

ra zituztenak, baina freskagarri latak, burdina eta maskarak ere atera zituzten». Sentsibilizazio jarduera horretan parte hartu zuten gaztetxoak taldetan banatuta aritu ziren ibaiko zati ezberdinak garbitzen eta amaieran, «harridura erakutsi zuten hain denbora tarte laburrean atera zuten hondakin kopurua ikusita».

Bestalde, Amasa-Villabonako Udalak herriko ibai eta naturguneen hileroko garbiketarekin jarraitzen due, eta dagoeneko Urtzain taldearekin duen kontratuaren seigarren astea bete du. Bada, egin duen azken garbiketatan 302 kilo hondakin jaso dutela adierazi du.



Ostiralean aritu ziren Alegiako gaztetxoak erreka garbitzen. ATARIA

Altzoko Argazki Bertso Lehiaketa, bertan behera

ALTZO // Udalak esan du Argazki Bertso Lehiaketa bertan behera utzi behar izan duela. Lehen fasean aurreikusitakoa baino argazki gutxiago jaso dituzte, 22 guztira, eta beraz, ezingo dute bigarren fasea ireki, horretarako 30 argazki behar dituztelako. Bide batez, eskerrak eman dizkie lehiaketan parte hartu duten guztiei.

Urmael didaktiko bat sortu nahi dute auzolanean

ALTZO // Altzoko Udalak urmael didaktiko bat sortu nahi du herritarren laguntzarekin. Urriaren 16rako egin du hitzordua; 10:00etatik 11:00etara *Odonatoak uraren hegoak* erakusketa bisitatuko dute Iñaki Mezquitarekin eta 11:00etatik 13:30era egingo dute auzolana putzua egokitzeke. Altzoko plazan elkartuko dira.

AEBetako gizartearen argi-itzalei buruzko hausnarketa

‘Ameriketako bidaia’ antzezlanaren iritsiko da eskualdera bihar, Tolosan eta Villabonan ikusi ahal izango baita; Nerea Mazo eta Miren Arrieta dira protagonistak

Josu Artutxa Dorronsoro

Tolosa

Bi nerabe euskaldun, Jone eta Maria, Ameriketako Estatu Batuetara joan dira ikasturte osorako. Ikuspuntu desberdina dute; Jonek amerikarren bizimoduari buruzko iritzi ona dauka eta Mariak *yankie*-kiko aurreiritzi asko ditu. Jonek ordea, hainbeste miresten duen gizarte horren alde iluna ezagutuko du eta Mariak, berriz, elkertasuna ezagutuko du. *Ameriketako bidaia* antzezlanaren etxera bueltatzen diren egunean kokatzen da, eta gizarte horri buruzko hausnarketa eskaintzen du modu atseginean. Maiatzetik ez dute antzezlanaren eskaini, eta eskualdekoa beraz, ia berrestreinaldia izango da.

Nerea Mazo eta Miren Arrieta dira antzezlaneko aktoreak. Nerea Mazok Jone gorpuzten du, Ameriketako ametsa betetzeko asmoz dagoen gaztea, hain zuzen. «Talka handia sortzen da bi pertsonaien artean. Mirenek gorpuzten duen pertsonaiak, Mariak, kolpe latza jasaten du



Bihar ikusi ahal da Tolosan ‘Ameriketako bidaia’. MIKEL BLASCO

hara iritsi bezain laster, eta iritzia aldatuko du». Bi aktoreek kontatzen dute Ameriketako bidaia, baina antzezlanean ez dira pertsonaia bakarrak; Mazo eta Arrieta momentuan itxuraldatu eta gorpuzten dituzte beste pertsonaia batzuk ere. «Oso diberti-

EMANALDIAK

Tolosa. Urriak 15, 20:30ean, Leidor antzokian.

Amasa-Villabona. Urriak 24, 19:30ean, Gurea antzokian.

garria» dela esan du Mazok eta aktoreentzat oso lan bizia dela nabarmendu du. Inprobisazio asko dagoela esan du eta bi pertsonaiak elkar elikatzen dutela.

Lanaren bidez gazteei kanpora ateratzea esperientzia polita dela adierazi nahi dietela esan du, bidean zailtasunak izango badituzte ere. Hala ere, esan du antzezlanaren adin guztietarako dela egokia. «Helduek gazteek baino hobeto pasatzen dutela esango nuke, ikusleek barre asko egiten dute, eta oso pozgarria da».



Tolosako apeaderoa, gaur egun. EGUZKI

Apeaderoako lanak atzerapenarekin datozela dio Eguzkik

TOLOSA // Tolosako apeaderoan irisgarritasuna hobetzeko lanak berandu datozela salatu du Eguzki plataformak: «Arduradunak orain arte zein motel ibili diren ikusita eta Urrietako eta Andoaingo aurrekariak ikusita, beldur gara 2025era arte, behintzat, Tolosak ez duela apeadero seguru eta irisgarria izango».

Manex Castro billabonatarra gerturatuko dute

TOLOSALDEA // Espainiako Espetxe Erakundeek zazpi preso lekualdatu dituzte azken egunetan. Manex Castro billabonatarra Darocakotik El Duesora eramango dute. Andoni Goikoe txea Gabirondo gazteluarra El Duesotik Martuteneko espetxera lekualdatu dute jada.

Atzerritartasun paperak tramitatzeko saioa, bihar

IBARRA // Atzerritartasun trami-teei buruzko informazio saioa egingo dute bihar 18:00etan kultur etxean. Ibarako Udalak antolatu du saioa Tolosaldea Garatzenekin batera. Atzerritartasun paperak tramitatzeari buruzko saio praktikoa egingo dutela esan dute.



ABIAN DA OINEZ BERASTEGI

Oinez Berastegi egitasmoko lehen ibilaldia egin dute jada. Udalak egindako proposamena da eta J. A. Muñagorri eskolako haurrek ere hartu dute parte ibilaldian. Kasu honetan, LH 6ko ikasleak izan dira laguntzen ibili direnak. Ondoren, hamaiketako egiteko tartea hartu zuten. ATARIA



EMAKUMEEN SARETZEAK

Albiztur, Bidania-Goiatz eta Errezilgo emakumeek egun pasa egin dute Saiaz Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatuta. Getaria eta Zarautz bisitatu zituzten eta helburua izan da mankomunitateko emakumeen sare- tzea, ahalduz kolektiboa eta belaunaldien arteko trukea egitea. ATARIA



Alkizako Erretore etxean dagoen udal liburutegian izango du lan lekua Ione Larragok, eta bertan sortuko du ipuin ilustratua. J.M.

Ione Larrago ilustratzailea Alkizan da Sormenaren Kabia bekari esker; txepetx bat protagonista duen ipuin ilustratua sortuko du egonaldi artistikoan

Ipuin bat sortzea helburu

Jon Miranda Alkiza

Txepetx batek amets baten bila egiten duen bidaia kontatuko duen ipuin ilustratua sortuko du Ione Larrañaga Gorritxok (Antzuola, 1993) Sormenaren Kabia bekari esker. Alkizan hiru astez egingo duen egonaldian ipuin ilustratu bat sortuko du eta abenduaren 17an erakutsiko du jendaurrean, Alkizan bertan egingo den ekitaldian.

Natura, denbora eta gizakiak sortzen duten hiruki horren bueltan egin izan ditu bere lanak Ione Larragok –hori da sortzaile gisa erabiltzen duen izena–. «Nire lanetan gehienetan denborarekin zerikusia duten elementuak hartzen ditut gaitzat; izan daiteke iragankortasuna, ziklikotasuna, bizitza edota herio-

tza bera. Natura erabiltzen dut hori adierazteko, hor ikusten delako errazen denboraren joana», aipatu du Larrañagak. Toki ezin aproposagoa du Alkiza kontu horiei erreparatzeko: «Hemen sentitzen duzu naturaz inguratuta zaudela. Liburutegiko leihoetik begiratu eta paisaia etengabe nola aldatzen den ikusten duzu. Ni hemen geldi eta kanpoan dena dago mugimenduan. Gainera hori nabarmenagoa da urte sasoi honetan, udazkenean. Liluratu egiten nau guzti horrek».

Arte Ederretan graduatu zen Madrilgo UCM unibertsitatean eta Ingalaterran bolada bat eman ondoren, Bartzelonan eman ditu azkeneko urteak, iaz Euskal Herrira bueltatzea erabaki zuen arte. «Hiri handi batean bizitzeko dena doa abiadura handian eta han ia tarterik ez duzu izaten sorkuntzarako. Bizimodua atera behar duzu eta Bar-

tzelona hiri prekarioa da horretarako». Euskal Herrira bueltatu eta bere sustraiekin berraurkitu dela dio ilustratzaileak. «Hainbeste urtetan bide bat bilatzen aritu ostean, orain ikusi dut argi eta igartzen dut, gainera, bide horren hasieran nagoela». Gurasoekin batera jardun erdiz aritzen da nekazaritza ekologikoan eta egunaren beste partea sorkuntzan ematen du.

SORKUNTZARAKO PAUSOAK

Larrañagak Alkizan eman dituen lehenengo egunak antolaketarako baliatu ditu. Ipuinak izango dituen atalak pentsatu ditu, storyboard-a. «Marrazkiak non joango diren, zein hutsune egongo diren, testuak zein forma hartuko duen antolatu dut, nahiz eta gero prozesuan dena aldatzen joan daitekeen». Testua berak sortutakoa dela dio artista antzuolarrak, nahiz eta ez den

idazlea: «Gauza bitxia gertatzen zait, burura lehenago etortzen zaizkit irudiak testua bera baino».

Marrazkiak paperean eta arkatzez egiten ditu. «Testura gustatzen zait eta bozetoak beti hor egiten ditut. Orrian behin eta berriro aritzea, zikintzea, gauzak tokiz aldatzea, elementuak ezabatzea eta ezabatu ondoren gertatzen den arrasto hori gustatzen zait. Gero nire ilustrazioak oso garbi ikusten dira, eta ez da antzematen atzean dagoen mugimendu hori guztia». Paperean egindako hori digitalizatu ondoren, ordenagailuan lantzen ditu lehenengo marrazkiak, garbitu eta koloreztatu egiten ditu. Larrañagak dio koloreek garrantzia handia dutela bere lanean: «Asko errepikatzen dira urdinak eta berdeak eta eroso aritzen naiz tonaltate horietan; ez dakit kolore berriei esperimenta-

tzeko abagunerik egokiena ote den lan hau. Antolaketa, marrazkiak berak eta testua pentsatuta daukadan bezala, kolorearena ez daukat oraindik erabat erabakita».

Azkeneko ukituak eman ondoren egonaldia bukatzerako ipuin ilustratua prest edukitzea espero du artistak. Printzipioz, 32 orrikoa izango da baina 40 orrira luzatzeko aukera ere buuruan du. Behin lana amaituta ikusiko du zein aukera dituen

«Askotan enkarguei erantzun behar izaten diet, oraingo honetan niretik sortutako zerbait izango da»

ipuin ilustratua argitaratzeko. «Gustatuko litzaidake kalera tzea, ea norbaitek argitaratu nahi duen. Autoedizioarena aukera bat da, baina saltsa handia izaten da hori».

Ipuina argitaratzeko ametsa du Larrañagak eta amets baten bila txepetx batek egiten duen bidaia kontatuko du liburu ilustratuak: «Adierazi nahi dut ez duzula zertan ametsak bete behar pozik egoteko. Bidean disfrutatu dezakezu eta asko ikasi. Gelditu gaitezen egiten dugunarekin eta ez lortzen ez dugunarekin». Ipuinaren bitartez mezu hori helarazten saiatuko da eta 7-8 urteko gaztetxoentzat egokia izan daitekeela pentsatzen du. Alkizako eskolako umeei tailer bat egiteko asmoa ere badu egunotan, haiei ipuin baten sorkuntza prozesua azaltzeko.

Larrañagak egunerokoan sormenerako hartzen ez duen tarte hartuko du Alkizan. Patxada hori hartzea pribilegioa dela esan eta aukera hau eman izana eskertu du. «Bestelakoetan proiektu pertsonalagoetan aritzen naiz eta askotan enkarguei erantzun behar izaten diet. Oraingo honetan niretik sortutako zerbait izango da». Ilustratzaile gisa egin dituen lanak ikusgai ditu Instagramen eta Facebooken Ione Larrago izenarekin eta ionelarrago.eus webgunean.

Ilustrazioaren eremuan egin ditu lanik gehienak baina muralgintzan ere badabil, herrian, Oier Peña lagunarekin. «Pozik nago, oso gustura, aukera geroz eta gehiago sortzen ari zaizkidalako». Azoka eta erakusketetan ere parte hartu du eta orain bere lehen ipuin ilustratua egiteko aukera izango du Sormenaren Kabia bekari esker. Emaizta datorren abenduan ikusgai eta irakurgai izango da.

Ahalduntze Eskolan izena emateko epea zabaldu dute Anoetan

Urriaren 20an amaituko da antolatutako hiru saioetan izena emateko epea; urriaren 19an, ipuin baten aurkezpena egingo dute

Erredakzioa Anoeta

Anoetan Ahalduntze Eskola jarriko dute martxan eta bertan parte hartu nahi duten emakumeek izena emateko aukera izango dute urriaren 20ra bitartean. Horretarako, udal liburutegira gerturatu beharko dute edo mezu bat bidali, kultura@anoeta.eus helbidera.

Anoetako Udalak jakinarazi duenez, aurtun hiru ikastaro antolatu dituzte. Irakurketa feministak saioak egingo dituzte eta Kattalin Miner idazle eta ekintzaile feministak gidatuko ditu. Azaroaren 23an, urtarrilaren 11n, martxoaren 15ean eta maiatzaren 17an egingo dituzte saioak, asteartean, 18:30etik 20:30era. Parte hartu nahi dutenek bost euro ordaindu beharko dute.

Bestalde, urriaren 23tik azaroaren 28ra xilografia bidez sormena lantzeko tailerrak egingo dituzte. Larunbat goizetan izango dira saioak 10:00etatik 12:00etara eta parte hartzeko, aurrez, interesatuek 10 euro ordaindu beharko dute. Mindfulness ikastaro bat ere antolatu dute azaroaren 2tik abenduaren 17ra. Saioak egiteko bi txanda izango dituzte: asteazkenetan 10:30etik 12:00etara; edo ostiraletan, 17:30etik 19:00etara. Kasu honetan, parte hartzaileek 10 euro ordaindu beharko dute mindfulness ikastaroan izena emateko.

'BABESLEAK' IPUIN ILUSTRATUA

Ahalduntze Eskolaz gainera, urriaren 19an *Babesleak* izeneko helduentzako ipuin ilustratuaren aurkezpena egingo dute Anoetan, 18:30ean hasita.

Bederatzi emakume feministak bultzatutako proiektu kolektiboa da *Babesleak*. Kolorez jantzitako 40 orrialde baino gehiagotan jatorrizko herriek eta, bereziki, luraren defentsan altxatzen diren emakumeek jasan beharreko jazarpenaren berri ematen dute. Anoetan Lolita Chavez Guatemala-ko ekintzaile ekologista eta feministak egingo ditu aurkezpen lanak.

Herri galdeketa 11 proiektuen artean erabaki ahal izango dute

Amasa-Villabonako Herritarren Parte Hartze batzordeak iaz bertan behera utzitako prozesua berreskuratu du; azaro bukaeran egingo dute herri galdeketa

Jon Miranda Amasa-Villabona

Amasa-Villabonan azaro bukaeran egingo den herri galdeketa 16 urtetik gorako herritarrek, 400.000 euroko aurrekontua zein inbertsionetara bideratu erabaki ahal izango dute. 11 proiektu izango dituzte aukeran eta herri galdeketa emaitza lotesleakenez, hautatuko proiektua 2022. urtean gauzatuko du udalak.

Herritarren Parte Hartze batzorde bereziko ordezkari politikoek eman dute 2021eko parte hartze prozesuaren barruan gaur arte eman dituzten urratsen berri. Beatriz Unzué alkateak, Xabat Laborde alkateordeak eta Patxi Agirre EAJ-ko udal taldeko ordezkariak eman dituzte xehetasunak eta nabarmendu dute alderdi politiko guztien adostasunarekin apirilaren 19ko bilkuran erabaki zuela Herritarren Parte Hartze batzorde bereziak iaz etendako prozesua berriro martxan jartzea. «COVID-19aren pandemiaren eraginez, bertan behera geratu zen 2020an abiatutako herritarren parte hartze prozesua», esan du Unzué alkateak. Apirilko bilkuran erabaki zuten udal ordezkariak, prozesu hau garatzeko Emun kooperatibaren aholkularitza zerbitzua kontratatzea. «Udalak berak dituen bitartekoekin soilik oso zaila da horrelako parte hartze prozesua eta herri galdeketa aurrera eramatea», esan dute udal ordezkariak.

Apirilaren 29an udalbatzak osoko bilkuran prozesua martxan jartzea erabaki zuen eta ordutik aurrera, 11 proiektu edo proposamen onartu bitartean emandako pauso «garrantzitsuak» aipatu ditu Patxi Agirre EAJ-ko zinegotziak.

PROZESUA PAUSOZ PAUSO

Amasa-Villabonako herritarrek, eragileek edo elkarteek proiektu proposamenak aurkezteko epea zabaldu zuen udalak maiatzaren 1etik ekainaren 15era. Epealdi horretan 18 proposamen aurkeztu zituzten. Ekainaren 15etik uztailaren 26ra bitartean, hirigin-



Parte Hartze batzordedoko ordezkari politikoek aurkeztu dute ekimena. J.M.

tza, ingurumena eta kultura sailak udal teknikariak proposamen guztiak aztertu zituzten eta proposamen bakoitzaren inguruko txosten teknikoak osatu zituzten. «Txosten tekniko guztiak aztertu ondoren, Herritarren Parte Hartze batzorde berezian honako erabaki zen: hiru proposamen onartzea, eta ondorioz zuzenean herri galdeketa eramatea; arrazoi tekniko ezberdinak direla medio, zazpi proposamen baztertzeara; eta beste zortzi proposamenei dokumentazio osagarria aurkezteko irailaren 15era bitarteko epea ematea», azaldu du Agirrek.

Irailaren 15erako aipatutako zortzi proposamenen dokumentazio osagarria udalean aurkeztu zutela nabarmendu dute batzordoko kideek eta prozesua gidatu duen lan mahaiak dokumentazio guztia aztertu ondoren, zortzi proposamen horiek ontzat ematea erabaki zutela. Beraz, aurreko hiru proposamenekin eta irailaren amaieran onartutako beste zortziki, 11 dira guztira Herritarren Parte Hartze batzordeak onartu dituen proiektuak, azaro amaieran egingo den herri galdeketa eramateko. Erabaki hori ere alderdi politiko guztien arteko adostasunarekin hartu dela azpimarratu nahi du EAJ-ko ordezkariak.

Unzueren esanetan, hilabete amaierarako proiektu guzti hauen informazio xehatua biltzen duen aldizkari informatiboa argitaratuko du udalak eta herriko etxe guztietara banatu. «Herri galdeketa azaroan egingo da eta datorren hileko lehen astean herri galdeketa buruzko informazio zehatza zabalduko dugu: data zehatza, bozkatzeko moduak, bete beharreko baldintzak eta abar. Xehetasun guzti hauek parte hartze prozesuko lan taldean eta udaleko Herritarren Parte Hartze batzorde berezian hilabete honetan adostuko ditugu», esan du alkateak. Besteak beste, hilabete amaieran emango dituzten datuen artean, proiektu bakoitzak duen aurrekontua zehaztuko dute. Herri galdeketa hautatutako proiektuen aurrekontuaren arabera, egitasmo bakarra edo gehiago egiteko aukera aztertuko dutela jakinarazi dute batzordean parte hartzen duten ordezkari politikoek.

Aurretik adostuta dagoen bezala, galdeketa emaitza lotesleak izango da, eta beraz, azaro amaieran amasarrek eta billabonatarrek lehenetsitako proiektuak gauzatuko ditu udalak 2022an. 400.000 euroko kopurua gorde du horretarako datorren urtean.

PROIEKTUAK

- 1 Parke bio-osasungarria.** Kale Nagusiaren hasierako pasealekuan parke bio osasungarria eraikitzea.
- 2 Oinezkoentzat egokitzea.** Txermin auzoko 19, 21, 23 eta 25 zenbakien atzealdeko kalea, Zubimusu ikastolaren albo-ko kalea, alegia, oinezkoentzat jartzea.
- 3 Txermingo aparkalekua.** Txermingo aparkalekua eraberritu eta inguruen urbanizazioa egitea.
- 4 Errebote plazan panel berriak.** Plazaren arkupeetan eta bere inguruan panel berriak jartzea, Errebotearen historiari buruzkoak.
- 5 Bolatokia, padel pista eta erabilera anitzeko espazioa.** Olaederra kiroldegiko bolatokia estaltzea eta padel pistak eta erabilera anitzeko espazioa eraikitzea.
- 6 Haur parkea.** Maiatzaren Lehen plaza ondoan dagoen haur parkea estaltzea.
- 7 Bide park.** Otsabin bide park edo bizikletan aritzeko gune zabala sortzea.
- 8 Etxeondoko plaza.** Etxeondo auzoko plazaren zoladura konpontzea.
- 9 Parke megalitiko.** Komizarko natura gunean, parke megalitiko egitea.
- 10 Skate park-a.** Olaederra kiroldegian inguruan skate park-a eraikitzea.
- 11 Kalistenia parkea.** Otsabiko parkearen alboan parkea jartzea. Kalistenia ariketa sistema bat da, giharren mugimenduan oinarritzen dena, makina edo tresna gabe, gorputzaren pisua baliatzen da.

Irakurketa jolas moduan ikusteko saioak egingo dituzte

‘Irakur jolas txokoa’ izeneko irakurketa kluba abiaraziko dute Lizartzan hilabete honetan; adin tarte bakoitzak hiruna saio izango ditu eta izena eman beharko da

Irati Saizar Artola

Haur, gaztetxo eta gurasoentzat irakurketa kluba abiatuko dute datorren astetik aurrera Lizartzan. Bigarren urtez jarraian antolatu dituzte saioak eta aurten ere Mari Garcia Galtzagorri elkarteak kidea izango da dinamizatzailea. Adin tarte bakoitzeko hiru saio egitea aurreikusitako dute eta Lizartzako liburutegian eman beharko da izena aurrez.

Irakur jolas txokoa du izena dinamika. «Txikitatik irakurketa jolas bat bezala ikustea» nahi du Garciak. Horretarako, haur eta gurasoak liburutegira elkarrekin joatea bultzatzen da, familiar parte hartzeko.

2008tik 2011ra bitartean jaiotakoek hilaren 18an izango dute lehen saioa, eta azaroaren 15ean eta abenduaren 13an izango dira beste bi saioak, 17:00etan, liburutegian. Taldetxo bat osatu dela kontatu du Garciak, nahiz eta adin tarte horretan ez den hain erraza: «Adin horretan irakurle sutsuak izan daitezkeen nahi dugu, baina lehenagotik ez badugu literatura zerbait polita bezala ikusteko ezer egin, zaila da 10 urterekin bat-batean irakurle onak sortzea».

2015etik 2017ra jaiotakoek batetik, eta 2012tik 2014ra jaiotakoek bestetik, urriaren 27an, azaroaren 24an eta abenduaren 15ean izango dituzte saioak; lehen taldekoak 17:00etan, eta bigarrenekoak 18:00etan. Bi talde haueta-

ko haurrak heldu baten laguntzaz joan beharko dute saioetara.

Dinamizatzaileak irakurketa batekin hasten du saioa, olerki batekin jarraitzen du, abesti batzuk ikasten dituzte eta jolasak egin eta album ilustratuekin aritzen dira. Azken 10-15 minutuetan gurasoek haurrekin disfrutatu dezaten uzten du eta tertulia txiki bat egiten dute guztia komentatzeko. «Gurasoei etxeko lan txiki bat ere ematen diet: abestiren bat, ipuinen bat ekartzeko eskatzen diet hurrengo saioan aurkezteko», azaldu du Garciak.

Haurrek ipuin, kantu edota olerkiekin «gozatu» dezaten nahi izaten du dinamizatzaileak, eta aldi berean gurasoen prestakuntza bilatzen du. «Gurasoek ikasi egin behar dute ze literatura den egokiena beraien haurrentzat; hori partekatzen dugu». Parte hartze aktiboa eskatzen die familiei, «autonomiaz haurrekin literatura lantzeko gai sentitu daitezen». Izan ere, esan duenez, «ordubeteko saio horietan ezin dugu etxean egiten ez denik egin». Eta gogorarazi du etxetik sortu behar dela giro hori.

Irakurketa sustatzea, kalitatezko euskal bibliografia ezagutzea, guraso eta hezitzaileek haurren arteko irakurketa giroa sortzea, ozenki irakurtzen trebatzea eta haurrak giro lasai batean egotea dira, besteak beste, Garciaren arabera, *Irakur jolas txokoa* dituen helburu nagusiak.



Mari Garcia Galtzagorri elkarteak kidea, liburuak aurrean dituela. ATARIA

Iaz «oso gustura» aritu zela kontatu du. «Herri txikia izanik, oso gertukoak egin zitzaizkidan haurrak nahiz familiak, oso giro polita eta epela sortu genuen».

IRAKURLE TALDEAK

Irakurzaletasunarekin jarraituz, Alegian eta Berastegin, gaur izango dituzte irakurle taldeetako saioak. Alegiako kasuan, Mi-

kel Ayllonen *Zoriontsuak izatea aukeratu genuen* liburua landuko dute, 18:00etan, Alegiako liburutegian, Amaia Goikoetxea dinamizatzailearen eskutik.

Berastegin, berriz, Harkaitz Canoren *Twist* liburuaz ariko dira, gaur, 18:00etan, udal liburutegian. Ikasturte berriko lehen saioa izango dute, Ione Gorostarzu dinamizatzailearen eskutik.

‘Ipuin txokoa’ dinamika hasiko dute Anoetako liburutegian ere

Hiru eta bost urte bitartekoek eta haien gurasoek gaur izango dute lehen saioa, 18:00etan, udal liburutegian

I.S.A. Anoeta

Hiru eta zazpi urte bitarteko haurrei eta haien gurasoei begirako bina saio eskainiko ditu Miriam Mendoza ipuin kontalaria Anoetako udal liburutegian, *Ipuin txokoa* izeneko dinamika bidez. Gaur izango da lehen saioa, Haur Hezkuntzako haurrei zuzendutakoa, eta heldu batekin joan beharko dute. Saioa 18:00etan hasiko da.

Hiru eta bost urte dituzten haurrek bigarren saioa azaroaren 25ean izango dute, eta Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailatan daudenek, sei eta zazpi urtekoek, azaroaren 4an izango dute lehen saioa eta abenduaren 16an bigarrena. Saio guztiak ostegunetan izango dira, 18:00etatik aurrera.

Anoetako udal liburutegiak antolatutako dinamika da, eta esan dutenez bertaratzeko plazar mugatuak dira, beraz, izena eman beharko da aurrez liburutegian bertan edota liburutegi@anoeta.eus helbidera idatzita.

Saio horietan, haurrek ipuinak entzuteaz gain, gurasoek aukera izango dute seme-alabei ipuinak nola kontatu ikasteko. Horretan ahaleginduko da Miriam Mendozak kontalaria. Eta saioaren amaieran, saioan zehar kontatutako ipuinen liburu gida bana emango zaie gurasoei.

Hilberriak eta urteurrenak



Maite Galarraga Larrarte

*Joan zara,
baina gure artean
izango zaitugu beti.*

Alperrak kuadrilla eta bere lagunak.

IBARRAN, 2021eko urriaren 14an

hilberriak • eskertzak • urteurrenak

ATARIA jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 110€ • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 64mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Herri kirolen lehiak, larunbatean

ASTEASU // Herri kiroletako Gipuzkoako zenbait txapelketa izango dira jokoan Asteasun, larunbatean, 18:00etan hasita, Usarrabi frontoian. Sarrera doan izango da. Txingan, emakumezkoetan Ane Urresti, Nerea Arruti eta Lierni Osa ariko dira, eta gizonezkoetan Jabi Urresti, Aimar Galarraga eta Jon Unanue. Gurdian, Unai Goitia, Aimar Galarraga eta Jabi Urresti ariko dira. Eta lasto altxatzen oraingoan erakustaldia egingo da, bakarrik bi kirolari daudelako, Lander Otermin eta Pello Argaña.

Aratz Urkola eta Pili Esnaola, goi mailan

TRIATLOIA // Larunbatean jokatutako Lekeitioko XXVIII. Esprint Triatloian, Tolosaldeko Triatloi Taldeko partaide ugari izan ziren bertan. Emaiztarik aipagarrienak emakumezkoen artean eskuratu ziren. Aratz Urkolak garaipena eskuratu zuen kadete mailan eta Pili Esnaola bigarren izan zen beteranoetan.

Lau igerilari Radikal Ocean52ko probatan

IGERIKETA // Larunbata goizean Calella de Palafrugell eta Llafranc herrietan, Radikal Ocean52ko probatan Tolosaldeko lau igerilarik parte hartu zuten. 7 kilometroko distantzian, Master 30 mailan, Ioseba Mateos laugarren izan zen 01.29.21rekin (18. orokorrean) eta Master 40 mailan Kepa Jauregi 16 izan zen 1.42.54rekin (50. orokorrean). 3,5 kilometrokoan, Master 40 mailan, Ion Artutxa hirugarren izan zen 44.25rekin (10. orokorrean) eta Angel Tena hamargarren 53.26rekin (32. orokorrean). Radikal Relays 4x800 metro erreleboetan Fatality K.E. izenarekin atera ziren laurak eta hirugarren egin zuten 46.50rekin.

Behar Zana, Enrike Abrileko finalean

AMASA-VILLABONA // Behar Zana elkarteak 58. Enrike Abril errebote txapelketako finala jokatuko du, igandean Villabonan jokatutako finalerdian Kanboarrak taldeari 13-8 emaitzarekin irabazi eta gero. Finala hilaren 17an jokatuko da, Oiartzungo Beheko Plazan, eta aurkaria Luzean taldea izango da.

Orendaingo inguruez gozatzeko mendi lasterketa, hilaren 23an

4. Eltxotrail mendi lasterketa antolatu dute, bi ibilbiderekin: luzea 21 kilometrokoa eta motza 8,3koa

Imanol Garcia Landa Orendain

Iazko hutsunearen ondoren, Orendaingo Eltxotrail mendi lasterketa berriro bueltan da, eta hilaren 23rako antolatu dute laugarren edizioa. «Oporretatik bueltan nahiko animatuta geunden, eta zirt edo zart antolatzea erabaki genuen», azaldu du Aimar Agirresarobe antolakuntzako kideak.

Bi ibilbide egongo dira aukeran egiteko, motza 8,3 kilometrokoa eta luzea 21 kilometrokoa. Urtero egin izan dituzte bi distantzia, baina ibilbide motzekoa aldatzen joan da gaur egun osatu dutena iritsi arte. «Herri txiki bat gara, eta Eltxotrail guretzako festa moduko bat da», esan du Agirresarobek. «Gure helburua beti izan da mendi lasterketan parte hartzea zer den probatzeko aukera ematea, eta horregatik mantentzen dugu distantzia motzeko ibilbidea». Proba luzea

ere ez dela teknikoa eta ibilbidearen aldetik ere ez dela «ikaragarri gogorra» esan du, «baina 21 kilometro dira eta bere ondorioak izaten ditu, eta ibilbide motz bat izatea ez dago soberan».

Proba luzeko parte hartzaileak 16:00etan aterako dira eta motzekoak 16:15ean. Luzeko irabazleak ordu eta erdi inguruko denbora egin ohi duela dio Agirresarobek eta probak amaitzeko ez dagoela denbora mugarik nabarmendu du.

Ibilbide luzean Ibiur urtegira jaisten dira eta handik Gaintzara igotzen dira. Ondoren, Alzagaratetik igaro ondoren, Baliarrain aldera joaten dira eta handik berriro Ibiur urtegira jaitsi eta bukatzeko Orendainera igotzen dira. Guztira 730 metro positiboko aldapa dute. «Korrika asko egiteko proba da, eta asfaltoan aritzen denarentzako proposa izan daitekeen ibilbidea da», zehaztu du Agirresarobek. Motzari

dagokionez, ibilbide luzearen hasiera eta amaiera lotzen dituzte, Ibiurko urtegiko pistak aprobetxatuz.

Izena bakarrik Internet bidez eman ahal da. Horretarako *Eltxotrail.com* helbidera joan behar da eta izen emateko atalean sartu. Lasterketaren bezpera izango da azken eguna horretarako. Ibilbide luzean parte hartzen dutenek 20 euro ordainduko dute, eta horren barne probarako aseguruia izango dute. Ibilbide motzekoek 12 euro ordainduko dute. Parte hartzaile guztiek sariren bat izango dute, eta helmugan mokadutxoa hartzeko aukera izango dute.

Izena banaka eman behar da, baina aukera dago bikote mistoa eginez binaka parte hartzeko. Dortsala hartzerakoan adierazi beharko zaie hori antolatzaileei. Proba bakoitzean, beraz, banakako sailkapenaz gain, bikotekakoa egongo da.

Jon Urbieta asteasuarra, bote luzeko finalean

I. Garcia Landa Asteasu

Bote Luzeko Euskal Herriko Txapelketako finala jokatuko du Gipuzkoak aurtan, eta bertako partaidea da Jon Urbieta asteasuarra. Bizkaia 1 taldea izango du aurkari, etzi, larunbata, Nafarroako Buñuel herrian. Gipuzkoarrak Iparralde 2 taldeari irabazi zioten finalerdietan (11-1), eta Bizkaia 1 Bizkaia 2 taldeari nagusitu zitzaion (5-3).

Bote luzea aspaldiko pilota jokamoldea da, eta aurrez aurre jokatzen da, talde bakoitzean bost pilotari daudelarik. Markagailua jokoak lortuz osatzen da. Seigarren Euskal Herriko Txapelketa jokatzen ari dira eta oraindik ez dute gipuzkoarrek txapelik lortu. Behar Zana elkarteak pilotaria



Jon Urbieta, bote luzean. ATARIA

da Urbieta eta orain sei urte hasi zen ere bote luzean jokatzen. Jokamolde horretan entrenatzeko ez du aukera handirik izaten: «Batetik aire librean izaten da,

eta bestetik hamar pilotari behar dituzu partida osatzeko, eta hori ez da erraza izaten. Batez ere frontoian ibiltzen gara».

Finalerdietako markagailuari begiratuta, nahiko erraz irabazi zutela dirudi, baina partidaren hasiera nahiko borrokatua izan zela dio Urbietak: «Gero, aurreneko kintzeak eta jokoak egin ahala, lasaitzen joan ginen eta beraiek pixka bat behera etorri ziren, eta orduan partida hautsi egin zen».

Bizkaia 1 taldea aurkari gogorra izango dela esan du Urbietak: «Pilotari onak dituzte taldean, eta gure aldetik saiatuko gara lanak ematen». Nafarroa hegoaldean izango da finala eta, beraz, larunbatean bidaia luzea izango dute pilotariek.

Taldea itxura oso ona ematen ari da



Aulkitik

Eider Tejeria

1. Maila Nazionala

Aurreko astean alde egin ziguten puntuak eskuratzeko gogoz abiatu ginen igandean goizeko hamarretan Oiartzun aldera. Bage-nekien aurkari gogor bat genuela aurrean eta partida borrokatua izango zela, Oiartzunen aurka jokatzen ditugun partida guztien antzera. Gainera, denboraldiarean jokatu genuen partidaren errebantxa gogoz ere bagindoa zen.

Sendo hasi genuen partida, taldea indartsu atera zen eta lehenengo zati ona jokatu genuen, nahiz eta atsedean aldira hutseko berdinketarekin iritsi. Bigarren zatia hasi bezain laster sartu zuen Jonek gola baina Oiartzunek segituan lortu zuen berdintzea eta azkenetako pixka bat sufrituz leko berdinketarekin bukatu zen partida. Puntu bakarra ekartzea lortu genuen Tolosara, baina taldea itxura oso ona ematen ari da eta seguru laster iritsiko direla garaipenak!

BILLABONA FKE	
Arratzain futbol zelaia	
INFANTIL TXIKI MAILA Igandea 17, 09:30ean BILLABONA F.K.E. AIZKORRI F.T.	1. KADETE MAILA Igandea 17, 11:30ean BILLABONA F.K.E. HERNANI C.D.
1. JUBENIL MAILA Igandea 17, 15:30ean BILLABONA F.K.E. ORDIZIA K.E.	OHOREZKOKO JUBENIL MAILA Igandea 17, 17:45ean BILLABONA F.K.E. ORDIZIA K.E.
f i t Billabona Fke	



OSTEGUNA, 2021EKO URRIAK 14
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 14

AGENDA

Deialdiak

Alegia. Zoriontsuak izatea aukeratu genuen lana irakurle taldean, liburutegian, 18:00etan.
Berastegi. Harkaitz Canoren *Twist* eleberria landuko dute irakurketa klubean, liburutegian, 18:00etan.
Tolosa. San Estebango XXXIII. aste kulturala: 19:00etan, pintxo potea Hiru-Aldetan eta auzo elkarteetan eta Estebania erraldoiari ongietorria.

Zinema

Tolosa. *El interdentente Sansho* filma, Laidor aretoan, 19:00etan.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Magazina.
15:00. Entzuteko jaloak. Musika.
16:00. Zebraidea. Magazina.
20:00. Musikasi. Musika klasika.

28 KANALA

GAUR
08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!
09:30. Gaurkoan Tolosaldeko
15:00. Elkarriketap
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Pintxo-Pote (Irati Lacunza)
BIHAR
08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!
11:30. Gaurkoan Tolosaldeko
16:30. Eugeniren txokoa (Iñaki Perurera)
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Lehen lerroan

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Edurne Ben-goetxea Aiestaran. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro eguzkitsuarekin jarraituko dugu. Goizeko behe-lainoa altxa ostean, eguraldi eguzkitsua nagusituko da egun osoan. Arratsaldean goi-hodei batzuk agertuko dira, baina ez dute inolako ondorioz ekarriko. Haizeak hego-ekialdetik joko du eta tenperatura igo egingo da, 21-22 graduan joz goia.

Bihar. Eguraldi lasiarekin jarraituko dugu. Goizean erdi eta goi-mailako hodei batzuk agertuko badira ere, eguraldi eguzkitsua eta ederra izango dugu. Arratsaldeak aurrera egin ahala ordea, behe-hodeiak ugaritzen joango dira, azken orduetan zerua estali xamar geratuko delarik. Hala ere, ez du euririk egingo. Haizeak goizean hego-mendebaldetik joko du, arratsaldean aldez, ipar-mendebaldetik. Tenperatura jaitxi egingo da, 20-21 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.



GASTEIZKO ERAILKETA SALATU DUTE

Gizon batek bere emaztea hil zuen herenegun Gasteizen, eta bere buruaz beste egin zuen ondoren. Gertakaria salatzeke elkarretaratzeak egin zituzten atzo Tolosako Trianguloko plazan, besteak beste, Tolosako Asanblada Feministak —irudian— eta Tolosaldeko Itaiak deituta. Villabonan Lurgatz talde feministak deituta, *Eraso sexistarik ez! Autodefentsa feminista!* lelopean gaur egingo dute elkarretaratzea, oinezkoen zubian, 19:00etan. IMANOL GARCIA

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

www.ataria.eus · 107.6 fm ·

Agregatzaile finantzarioa Aplikazioaren jakinarazpenak

LK Pay Txata

Online hipoteka

Meet Bideo-konferentzia-gestorearekin

— Yolanda Munin Freire
Bulego-gestorea, Zornotza

Erreminta digital guztiak ditugu zuretzat.

ZOZKETA BEREZIA

Zozketan parte hartzeko epea 2021eko urriaren 14tik 24ra, **943 655 695 telefonoan edo ataria.eus-en.**



GoPro Hero 9 Black-aren ezaugarriak:

5K-ko bideoa eta 20 MP-eko argazkiak, egonkortze aurreratua, urperagarria (10 metrora), bateriak % 30 gehiagoko iraupena, lente ateragarria, ...



Bada beste modu bat